


## Itzulitako literatura – 2014


Joan den 2014an 87 literatur lan<sup>1</sup> euskaratu ziren, Nor da Nor datu-baseak jasotzen duenaren arabera. Horietatik, 48 haur eta gazte literaturakoak izan ziren, eta helduen literaturakoak, berriz, 39.

Aurreko urteetako datuekin erkatuz gero ikus daitekeenez, gorabehera batzuen ondoren 2010eko egoera bertsuan gaude, bai argitaratutako obren kopuruari dagokionez, bai eta helduen eta haur eta gazteen literaturaren arteko harremanari dagokionez ere.



Literatur generoei dagokienez, narratiba da nagusi, baina azpimarratzekoa da helduen literaturan 9 poesia-liburu, 4 saiakera, 3 komiki eta antzerki lan bat euskaratu direla.

Hizkuntzei begiratzuz gero, hiru hizkuntzatatik itzuli da gehienbat: ingelesetik, gaztelaniatik eta frantsesetik. Proporzioak oso desberdinak dira helduen eta haur-gazteen kasuan. Helduen literaturan ia obra kopuru bera itzuli da hiru hizkuntza horietatik –11 frantsesetik, 10 ingelesetik eta 9 gaztelaniatik–; haur eta gazteentzako literaturan, berriz, 20 obra itzuli dira ingelesetik, 9 gaztelaniatik eta 8 frantsesetik.



Italieratik eta danieratik, guztira 10 liburu euskaratu dira, denak haur eta gazte literaturakoak; katalana eta galegoa datoz jarraian, eta, azkenik, arabieratik eta portugasetik helduen literaturako liburu bana euskaratu dira.

Bego Montorio  
NdN taldea  
2015eko apirilean

<sup>1</sup> Paperean argitaratutako monografiak.